

# Frases usuales

castellano - euskera

Lan  Hitz

<i>01. SALUDAR</i>		<i>01. AGURTU</i>									
- Hola!		- Kaixo!									
- Buenos días.		- Egun on!									
- Buenas tardes.		- Arratsalde on!									
- Buenas noches.		- Gabon!									
- Buenos mediodías.		- Eguerdi on!									
- Igualmente.		- Bai eta zuri ere.									
- Adiós.		- Agur!									
		- Agur t'erdí!									
- Hola!		- Iepa!									
- Que le vaya bien.		- Izan ondo!									
		- Izan ongi!									
		- Ongi izan!									
- Hasta siempre.		- Ez adiorik!									
- Hasta mañana.		- Bihar arte.									
- ¡Hasta la vista!		- Ikusi arte!									
- ¡Hasta la próxima!		- Elkar ikusi arte!									
- Hasta pronto.		- Laster arte.									
- Hasta luego.		- Gero arte.									
- Hasta el	<table border="1"> <tr> <td>martes</td> <td rowspan="3">que viene.</td> </tr> <tr> <td>jueves</td> </tr> <tr> <td>domingo</td> </tr> </table>	martes	que viene.	jueves	domingo	- Hurrengo	<table border="1"> <tr> <td>asteartea</td> <td rowspan="3">arte.</td> </tr> <tr> <td>osteguna</td> </tr> <tr> <td>igandea</td> </tr> </table>	asteartea	arte.	osteguna	igandea
martes	que viene.										
jueves											
domingo											
asteartea	arte.										
osteguna											
igandea											
- Hasta la semana que viene.		- Datorren astera arte.									
- Me alegro mucho de verle.		- Asko pozten nau zu ikusteak.									
- Mucho gusto.		- Pozten naiz.									
- Tanto gusto.		- Urte askotarako.									
- Bienvenido.		- Ongi etorri.									
- ¡Vaya usted con Dios!		- Ondo joan!									
- Que tenga buen viaje.		- Bidaia ona izan.									

<i>02. PREGUNTAR POR ALGUIEN</i>		<i>02. NORBAITEZ GALDETU</i>	
- ¿Qué tal? ¿Qué tal está Ud.?		- Zer moduz? Zer moduz zaude?	
- ¿Cómo está su	padre?	- Zer moduz (dago) zure	aita?
	hija?		alaba?
	hermana?		arreba?
	primo?		lehengusua?
	tía?		izeba?
- ¿En qué anda su hermano?		- Zertan ari da zure anaia?	

- ¿Todo en orden? ¿Va todo bien?	- Dena ondo? Dena ongi?
-------------------------------------	----------------------------

- ¿Alguna novedad?	- Ezer berririk bai?
--------------------	----------------------

- Muy bien, muchas gracias. Todo bien, muy agradecido.	- Ongi, mila esker. (Dena) ondo, esker anitz.
---	--

<b>PARIENTES</b>	<b>SENIDEAK</b>
- Abuela	- Amona
- Abuelo	- Aitona
- Abuelos	- Aiton-amonak
- Bisabuela	- Birramona
- Bisabuelo	- Birraitona
- Cuñada	- Koinata
- Cuñado	- Koinatua
- Hermana	- Arreba Ahizpa
- Hermano	- Anaia Neba
- Hermanos/as	- Anai-arrebak
- Hija	- Alaba
- Hijo	- Semea
- Hijos	- Seme-alabak
- Madre	- Ama

<b>PARIENTES</b>	<b>SENIDEAK</b>
- Marido Esposo	- Senarra Gizona
- Mujer Esposa	- Andrea Emaztea
- Nieto/a	- Biloba
- Nuera	- Erraina
- Padre	- Aita
- Padres	- Gurasoak
- Prima	- Lehengusina
- Primo	- Lehengusua
- Primos	- Lehengusu- lehengusinak
- Sobrino/a	- Iloba
- Suegra	- Amaginarreba
- Suegro	- Aitagarreba
- Tía	- Izeba
- Tío	- Osaba
- Yerno	- Suhia

<i>03. EL TIEMPO CRONOLÓGICO</i>		<i>03. DENBORA KRONOLOGIKOA</i>		
- ¿Qué hora es, por favor?		- Zer ordu da, mesedez?		
- ¿Me podría decir la hora que es?		- Esango al didazu zer ordu den?		
- ¿Tiene usted hora?		- Ba al duzu ordurik?		
- Es la una de la tarde (en punto).		- Ordu bata da	(puntu).	
			(puntu-puntu).	
- Son las cuatro y cuarto.		- Laurak eta laurden dira.		
- Son las once y media.		- Hamaika eta erdiak dira.		
- Sí, son las tres menos cinco.		- Bai, hirurak bost gutxi dira.		
- Son las diez de la mañana.		- Goizeko hamarrak dira.		
- Son las cinco de la tarde.		- Arratsaldeko bostak dira.		
- ¿A qué hora es el autobús?		- Zer ordutan da autobusa?		
- ¿A qué hora abren por la tarde?		- Zer ordutan irekitzen dute arratsaldean?		
- ¿A qué hora cierra	la taquilla?	- Zer ordutan ixten da	leihatila?	
	la peluquería?		ile-apaindegia?	
	el restaurante?		jatetxea?	
	el bar?		taberna?	
	el servicio de información?		informazio-zerbitzua?	
- Tenemos	mucho tiempo.	- Denbora	asko	daukagu.
	tiempo de sobra.		soberan	
	poco tiempo.		gutxi	
- No tengo tiempo.		- Ez daukat astirik.		

**LA HORA**

**¿Qué hora es?**

11:00	- Son las once (en punto).	- Hamaikak dira. Hamaikak puntuan dira.
11:05	- Son las once y cinco (minutos).	- Hamaikak eta bost dira.
11:10	- Son las once y diez (minutos).	- Hamaikak eta hamar dira.
11:15	- Son las once y cuarto.	- Hamaikak eta laurden dira. Hamaika eta laurdenak dira.
11:30	- Son las once y media.	- Hamaika eta erdiak dira.
11:35	- Son las once y treinta y cinco (minutos). Son las doce menos veinticinco (minutos).	- Hamabiak hogeita bost gutxi dira.
11:40	- Son las doce menos veinte (minutos).	- Hamabiak hogeit gutxi(ago) dira.
11:45	- Son las doce menos cuarto. Son las once y tres cuartos.	- Hamabiak laurden gutxi(ago) dira.
12:00	- Son las doce (en punto). Son las doce del mediodía.	- Hamabiak dira (puntu-puntuan). Eguerdiko hamabiak dira.
13:00	- Es la una del mediodía.	- Eguerdiko ordubata da.
15:00	- Son las tres de la tarde.	- (Arratsaldeko) hirurak dira.
16:00	- Son las cuatro de la tarde.	- (Arratsaldeko) laurak dira.
24:00	- Son las doce de la noche. Es medianoche.	- Gaueko hamabiak dira (puntuan).

**¿A qué hora?**

08:20	- A las ocho y veinte. Las ocho y veinte de la mañana.	- Zortziak eta hogeian. Goizeko zortziak eta hogeian.
09:30	- A las nueve y media (de la mañana).	- Bederatzi eta erdietan. Goizeko bederatzi eta erdietan.
16:05	- A las cuatro y cinco (de la tarde).	- Arratsaldeko laurak eta bostean. Hamaseiak eta bostean.
17:45	- A las seis menos cuarto.	- Arratsaldeko seiak laurden gutxi(ago)tan. Hemezortziak laurden gutxi(ago)tan.
22:10	- A las diez y diez (minutos) (de la noche). A las veintidós horas y diez (minutos).	- Gaueko hamarrak eta hamarrean.
23:45	- A las doce menos cuarto de la noche.	- Gaueko hamabiak laurden gutxi(ago)tan.

**¿Desde qué hora a qué hora?**

09:00 - 13:30	- De nueve de la mañana a una y media (del mediodía).	- Goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu bat eta erdietara.
11:15 - 11:45	- De once y cuarto a doce menos cuarto.	- Hamaikak eta laurdenetatik hamabiak laurden gutxi(ago)tara.
08:00 - 21:30	- De ocho de la mañana a nueve y media de la noche.	- (Goizeko) zortzietatik gaueko bederatzi eta erdietara.
10:00 - 14:00; 16:00 - 22:00	- De diez de la mañana a dos del mediodía y de cuatro de la tarde a diez de la noche.	- Goizeko hamarretatik eguerdiko ordu bietara eta arratsaldeko lauretatik gaueko hamarretara.
13:30 - 16:00	- De una y media del mediodía a cuatro de la tarde.	- (Eguerdiko) Ordu bat eta erdietatik arratsaldeko lauetara.
20:30 - 23:00	- De ocho y media de la tarde a once de la noche.	- (Arratsaldeko) zortzi eta erdietatik gaueko hamaiketara.

**FECHA**

2005-07-07	- Siete de julio de dos mil cinco.	- Bi mila eta bosteko uztailaren zazpian. Bi mila eta bosteko uztailak zazpi.
2007-12-25	- Veinticinco de diciembre de dos mil siete.	- Bi mila eta zazpiko abenduak hogeita bost. Bi mila eta zazpiko abenduaren hogeita bostean.
1990-06-26	- Veintiseis de junio de mil novecientos noventa.	- Mila bederatziehun eta laurogeita hamarreko ekainak hogeita sei. Mila bederatziehun eta laurogeita hamarreko ekainaren hogeita seian.

**DÍAS DE LA SEMANA**

**ASTEKO EGUNAK**

Lunes	Astelehena
Martes	Asteartea
Miércoles	Asteazkena
Jueves	Osteguna
Viernes	Ostirala
Sábado	Larunbata
Domingo	Igandea

MESES	HILABETEK
Enero	Urtarrila
Febrero	Otsaila
Marzo	Martxoa
Abril	Apirila
Mayo	Maiatza
Junio	Ekaina
Julio	Uztaila
Agosto	Abuztua
Septiembre	Iraila
Octubre	Urria
Noviembre	Azaroa
Diciembre	Abendua

ESTACIONES DEL AÑO	URTE-SASOIAK
Invierno	Negua
Verano	Uda
Primavera	Udaberria
Otoño	Udazkena

TEMPORALIZACIÓN	TENPORALIZAZIOA
Anochececer	Iluntzea
Madrugada	Goizaldea
Mañana	Goiza
Mediodía	Eguerdia
Noche	Gaua
Tarde	Arratsaldea
Anteayer	Herenegun
Ayer	Atzo
Hoy	Gaur
Mañana	Bihar
Pasado mañana	Etzi

04. EL TIEMPO (meteorológico)		04. EGURALDIA	
- ¿Qué tiempo hace hoy?	- Zer eguraldi	egiten du gaur?	dago gaur?
- Hoy hace buen día.	- Gaur eguraldi ederra dago.		
- Hace un tiempo muy seco.	- Oso eguraldi lehorra dago.		
- ¡Qué día más bueno hace hoy!	- A zer eguraldia egiten duen!		
- La temperatura de hoy es muy agradable.	- Tenperatura oso atsegina da gaur.		
	- Tenperatura oso atsegina dago gaur.		
- Hace viento.	- Haizea dabil.		
- Sí, cae un sirimiri.	- Zirimiria ari du.		
- Está cayendo sirimiri.			
- Está llovisnando.			
- Caen gotas.	- Tantak erortzen ari dira.		
- Empiezan a caer gotas.			
- Sí, empieza a hacer frío.	- Bai, hozten hasi du.		
- Sí, mejor que se ponga la chaqueta, porque ha refrescado.	- Bai, hobe jaka janztea, freskatu egin du-eta.		
- Hay	niebla.	- Lainoa	dago.
	mucha humedad.	- Hezetasun handia	
	muchas nubes.	- Laino asko	
- Está	nublado.	- Behe-lainoa	
- Hace	mucho calor.	- Bero handia	
- Está	despejado.	- Ateri	
- Hoy	hace	mucho	frío.
		un poco de	calor.
		poco	viento.
- Gaur	hotz	pixka bat	egiten du.
	bero	apur bat	
	haize	handia	
		gutxi	
		ikaragarria	
- Hoy	no hace	calor.	
		frío.	
		viento.	
- Gaur	ez du	hotz	egiten.
		bero	
		haizerik	



- Hoy	no hace	nada de	calor.
			frío.
			viento.
- Gaur	ez du batere	hotzik	egiten.
		berorik	
		haizerik	

- Uff! ¡Qué calor! Vaya bochorno que hace hoy.	- Ufa! Hau da beroa! A zer sargoria gaurkoa!
- ¡Qué día más pesado el de hoy!	- Zein eguraldi zakarra dagoen gaur!
- Parece que va a llover.	- Euria egingo duela dirudi. Itxuraz euria botako du.
- Ha tronado. Ha habido relámpagos.	- Trumoiak jo du. Tximistak jo du(te).
- Ha granizado.	- Harriak jo du. Harria bota du.
- Vaya manera de granizar.	- Hori da kazkabarra botatzea, hori!

- Tenemos un clima de lo más variable. Ahora llueve, y luego sale el sol.	- Oso eguraldi aldakorra daukagu. Orain euria, eta gero eguzkia.
- ¿Cree usted que hoy va a llover?	- Euria egingo duela uste al duzu?
- Cada vez está más nublado.	- Gero eta lainotuagoa dago.
- Vaya niebla que hay. No se ve nada.	- Hori da behe-lainoa, hori. Ez da ezertxo ere ikusten.
- Mañana el cielo estará nublado.	- Bihar zerua lainotuta egongo da.
- Yo creo que va a nevar.	- Nik uste elurra egingo duela.
- En la televisión han dicho que va a caer una nevada.	- Elurra botako duela esan dute telebistan.

<i>05. DAR / SOLICITAR INFORMACIÓN</i>	<i>05. ARGIBIDEREN BAT EMAN / ESKATU</i>
- Debe ir usted a la segunda planta.	- Bigarren solairura joan behar duzu.
- Tendrá que pedir ese impreso en la cuarta ventanilla.	- Inprimaki hori laugarren leihatilan eskatu beharko duzu.
- Sí, puede subir en ascensor.	- Bai, igogailuan igo zaitezke.
- No, para bajar al garaje tiene que utilizar las otras escaleras.	- Ez, garajera jaisteko beste eskailera horiek erabili behar dituzu.
- ¿Me entiende usted?	- Ulertzen al didazu?
- ¿Qué quiere decir esto?	- Zer esan nahi du honek?
- ¿Podría repetírmelo, por favor?	- Errepikatuko al didazu mesedez?
- ¿Qué dice? ¿Qué quiere usted?	- Zer diozu? Zer nahi duzu?
- Un momento. Espere un poco, por favor.	- Zaude apur bat! Itxaron pixka bat.
- No le he oído. No le he entendido.	- Ez dizut entzun. Ez zaitut aditu.
- Podría repetirlo, por favor?	- Errepikatuko zenuke, faborez?
- Más despacio, por favor.	- Polikiago, arren.
- Espere un momento, por favor. Repítalo, por favor. Más lentamente, por favor.	- Egon apur batean, mesedez. Berriro, mesedez. Astiroago, mesedez.
- Pase. Pase, por favor.	- Sartu aurrera, mesedez.
- Adelante, adelante.	- Jarrai aurrera, otoi.

<i>06. DECIR QUE SÍ / NO</i>	<i>06. BAIETZ / EZETZ ESAN</i>
- Sí, tiene usted razón.	- Bai. Arrazoi duzu.
- Sí, ya sé de qué marca de relojes me está hablando.	- Bai, badakit zein erloju markaz ari zaren hitz egiten.
- Me parece bien.	- Ondo iruditzen zait.
- Es verdad. Por supuesto.	- Egia da. Bai horixe.
- Como usted quiera. Como Vd. desee.	- Nahi duzun bezala.
- Tal vez. Puede ser. Podría ser.	- Beharbada. Akaso. Izan liteke. Litekeena da.
- Depende. Según para qué lo quiera usted.	- Segun eta zertarako nahi duzun.
- No, no creo que eso sea así, me parece que está usted equivocada.	- Ez. Ez dut uste hori horrela denik, oker zaudela iruditzen zait.
- No, no creo que se fabrique nada de esas dimensiones.	- Ez dut uste neurri horretan ezer fabrikatzen denik.
- No, no conozco ese modelo.	- Ez, ez dut modelo hori ezagutzen.
- No sé.	- Ez dakit.
- No, lo siento, no conozco esas marcas de juguetes.	- Ez, barkatu, jostailu marka horiek ez ditut ezagutzen.
- No, se ha confundido, aquí no tenemos de eso.	- Ez, nahastu egin zara, hemen ez daukagu horrelakorik.
- Qué lástima, de ese color no nos queda ninguna unidad.	- Ez, sentitzen dut. Kolore horretakorik ez zaigu geratzen ale bakar bat ere.
- Ni hablar.	- Ezta pentsatu ere.

<i>07. DAR LAS GRACIAS</i>	<i>07. ESKERRAK EMAN</i>
----------------------------	--------------------------

- Muchas gracias.	- Eskerrik asko.
- Muy agradecido.	- Mila esker.
- Gracias mil.	- Esker anitz.
- De nada.	- Ez horregatik.

- Quiero darle las gracias.	- Eskerrak eman nahi dizkizut.
- Les agradezco de verdad.	- Benetan estimatzen dizuet.

<i>08. PEDIR PERDÓN</i>	<i>08. BARKAMENA ESKATU</i>
-------------------------	-----------------------------

- Perdón.	- Barka iezadazu.
-----------	-------------------

- Disculpe, ha sido sin querer.	- Nahi gabe egin dut.
---------------------------------	-----------------------

- Disculpe, me he equivocado.	- Barkatu, nahastu egin naiz.
-------------------------------	-------------------------------

- Lo siento, ha habido un malentendido.	- Sentitzen dut, gaizkiulerturen bat egon da.
---	---